

# BAKARKA...

Ama Bakarti,  
Gure biotzez egarti,  
Miñez zaitut ikusi  
Arantzean nik.

Belaun naukazu  
Giz' arazoz bestetsu,  
Zure gogoz leiatsu...  
Zeruz goseti  
Ama ezti!

"Besarka nazak  
Illunpe ori!  
Goxo esaka,  
Egon nadin  
Arantzaz batki.

Natzakiok ken  
Algarari!  
Biotz-ler omen  
Senti nadin  
Ene Amarekin.

Ene biotz aundi:  
Beste maitez  
Ago ixilik.  
Mari duk ik  
Gaur, maite labi.

Iduri bizi:  
Egizak uts  
Ene barnean.  
Izan, bakarki  
Gaitezen bi,  
Ama ta ni."

Gau  
Illun!  
Bakar  
Iñun!  
Dut  
Mari  
Ene lagun!

Nik: "Mintza zaitetz lehen.  
Zure itz ezteiei  
Darien zoramenez,  
Senti nadin emen."

Marik: "Zorion!, zuri luzatuki  
Eman dut asier.  
Asier ta amai  
Ala ba litez!

Egarri naiz  
Arantzetik  
Egin nuen dei.  
Ordun ta gaur  
Berdin nabil.

Ixur-ixuri  
Malkotan bil!  
Baña ... zer nereei?  
... utskeri bailitz  
Obenpe dabiz  
Igeri.

Egun dut Nik  
Barnean miñ  
Iñoiz ez bezain aundi!  
Berriz biotza dit  
Arantzak ideki.

Miñez baño pozik  
Dut biotza iturri.  
Maitasuna ixuriz  
Biotz garbigarri dedin ...  
... baña negarra darit!

Ez dut iñor eskari,  
Aitzitik, bai, gaitzeslari.  
Jauna, entzun akit:  
Bizitz ok  
Nolatan irabazi?"

Nik: " Ama, onatx ni  
Askets-eskari:  
Pekatari, baña  
Damuz beterik.  
Ni ta guzinongan  
Ixur ur garden ori!

Arantzez josirik  
Gaude etsi-etsi.  
Arantz-mota askok  
Naukate esi,  
Espetxerako bainintz.

Ni, diru t'aragi,  
Iru alde batetik  
Egar-piztugarri.  
Zure Jesus bestetik  
Ok eragozten neri.

Guda bizia!  
Dirua nai t'ezin.  
Aragi puska, ta berdin!

Neu gallendu nai,  
T' alperrik!

Iru iltzez lurriari  
Gauzkatzu josirik.  
Oso zait gaitz  
Aske izatea beti.  
Ama lagun neri!

Obendun naiz,  
Eriotza dut ondo irabazi.  
Eriotz ta su izango ote  
Niretzat beti?  
Ama, erruki,  
Lagun neri.

Bereziartua tar Iñaki  
Prantziskotarra.

